

Arrasatetik 79-10-21

PIERRE LAFFITTE

Ustaritz

Pierre Lafitte, kalonge agurgarri hori:

Orain dela hilabete bat zure laguntza eskatu banuen, Zaitegiren gaineko galdeketa baten bidez, oraingo honetan ere asmo berberak narama beste mesede bat eskatzera. Zaitegirekin behin mintzatzen ari nintzelarik zurekin izandako gertakizun bat kontatu zidan. Dirudienez, "Evangeline" eta Sopokelen lehen liburuen gaineko kritika bat egin zenion aldizkariren batetan. Berak esaten zidanez, ez zenuen bere izena toki onean jartzen aukera hartan. Ondorioz, "Orixe"-k erantzun omen zizun beste aldizkari batetan, Zaitegiren lana goraiapatuz. Jokinek ez zuen gogoratzen orduah zeintzu ziren aldizkari hoik eta ezta noizkoak ziren ere.

Beharbada, zuk bai gogoratuko duzula. Noski, "Platon`eneko Atarian" liburuarri hitzaurrea egin baino lehenagokoak dira "eritzi-aldaketa" hoik. Honela izanez, esango al zenidake nola eta non argitaratu zenuen artikulu hori?. Zertaz zihoan eta zermolako erantzuna izan zen "Orixe"-rena?

Hau jakinez gero askozaz osagoa geldituko litzateke liburuan aipamen hau. Zaitegiri buruzko lan honentzat mundu guztian sakabanaturik bizi diren euskaldunen laguntza- datu gisa- hartzen ari naiz. Dagoeneko, artxibo handia osatu dut eta bilketa hasi besterik ez dut egin. Beraz, ez dakit zer egingo dudan agertzen ari diren hainbeste datuekin. Galbahea igaro behar izango dut alerik baliotsuenak bertan geldi daitezten. Honek lan gogorra adigarzaten du, baina Zaitegik hori eta gehiago merezi duela uste dut.

Eta besterik ez. Osasunez ondo jarraituko zarela opa dizut, euskarak eta euskal munduak zure laguntza behar baitu.

Zure erantzun zai gelditzen naiz. Bitartean, har ezazu nere agurrik beroena,

José M<sup>o</sup> Vélez de Mendizabal  
Avda. de Navarra, 9-3<sup>o</sup> ARRASATE Mondragón  
Gipuzkoa